

HERRI MUSIKA BILDUMAREN URRATS BERRIA

Herri Musikaren alde egiteko, erabiltzen dugun beste tresnen artean, Herri Musikaren Txokoak 2004an "Herri Musika Bilduma" idatzien argitalpeneko bidea martxan jarri zuen.

Herri Musikaren alde egiteko, erabiltzen dugun beste tresnen artean, Herri Musikaren Txokoak 2004an "Herri Musika Bilduma" idatzien argitalpeneko bidea martxan jarri zuen. Ez zuen argitaratze abiadura makalean hasi bere ibilbidea, lehen urte horretan hiru zenbakiak plazaratu bait ziren:

1. Dultzaina Gipuzkoan.
1950. hamarkada arte
2. Albokaren alde batzuk
3. Txalaparta
eta beste aldaera zaharrak

Ondorengo bi urtetan gauza baten eta bestearen artean ez genuen zenbaki berririk plazaratzeko aukerarik izan eta 2007a izan da laugarren zenbakia argitaratua ikusi duen urtea.

Horrela, atsedean luze honen ondoren laugarren zenbakiarekin "Herri Musikaren I. Jardunaldiak. Herri Musika - Bertsolaritza" deritzan liburua argitaratu du.

Lan honetan, Herri Musikaren Txokoaren eta Euskal Herriko Bertsozale elkartearen artean antolatuta, Oartzunen 2002ko azaroaren 30 eta abenduaren 1ean zehar gertatutako Herri Musikaren I. Jardunaldiak izeneko jardunaldietan esandakoa eta gertutakoa azaltzen da.

Jardunaldi hauetan Herri musika eta Bertsolaritzaren arteko erlazioa eta elkar eragina aztertu, jorratu eta eztabaidatu ziren. Mintegiak, hitzaldiak, mahai inguruak eta zuzeneko emanaldietan bertsolaritzaren kantaera ezberdinak aurkeztu ziren:

·I mintegia. HERRI MUSIKA - BERTSOGINTZA:
NORK NORI ZER

Joanito Dorronsoro: "Bertso Doinutegia: altxor baten lekuko"

Juan Mari Beltran: "Bertsolaritza, herri musikaren eragile sortzailea"

Andoni Egaña: "Bertsoa neurriaren musikan"

·Mahai ingurua: HERRI MUSIKA - BERTSOGINTZA:
NORK NORI ZER?

·Jaialdia: BERTSO KANTAERA DESBERDINAK

·Bertso afaria

HERRI MUSIKAREN
I. JARDUNALDIAK
HERRI MUSIKA - BERTSOLARITZA
Oartzunen, 2002ko azaroaren 30ean eta abenduaren 1ean



HERRI MUSIKAREN I. JARDUNALDIAK
OIARTZUN 2002
AZAROA 30
ABENDUA 1
HERRI MUSIKA - BERTSOLARITZA

2002/11/30
LARUNBATA
#10:00etatik-14:00etara
ARRITXULO ATERPETXEAN
MINTEGIA: Herri Musika - Bertsogintza (Nork Nori Zer)

#19:00etan
OIARTZUNGO UDALETXKO ARETO NAGUSIAN
JAIALDIA: Bertso Kantaera Desberdinak

#22:00etan
BERTSO AFARIA

2002/12/01
IGANDEA
#10:00etan
ARRITXULO ATERPETXEAN
MINTEGIA: Herri Musika eta Koplagingintza Erromerietan

#17:00etan
ERROMERIA: Musika eta koplak

ANTOLATZAILGAK: HIM, Gipuzkoako Foru Aldundia, Bertsolaritza Elkartea

BABESLEA: Bertsolaritza Elkartea

LAGUNTZAILGAK: ARITXULO ATERPETXEA, AIZOLATE ERROMERIA AIZOLATE ERROMERIA AIZOLATE ERROMERIA AIZOLATE ERROMERIA, OIARTZUNGO TRISTITZA ERROLA, LAURIAN TEXEILUARE TRISTITA, EUSKAL UNIBERTSITATEA, EUSKAL UNIBERTSITATEA, EUSKAL UNIBERTSITATEA, EUSKAL UNIBERTSITATEA

Herri Musika Bilduma, 4

·II mintegia: HERRI MUSIKA ETA KOPLAGINTZA
ERROMERIETAN

Iñaki Irigoien: "Dantza kantatuak"

Xabier Amuriza: "Koplagingintza ezaugarriak"

·Mahai ingurua: HERRI MUSIKA ETA KOPLAGINTZA
ERROMERIETAN

·Erromeria: Musika eta koplak

·Hemeroteka

Herri Musikaren bilduma tresna egokia delakoan gaudenez, bere bidea jarraitu behar duela iruditzen zaigu eta bosgarren zenbakia epe motzago batean plazaratzeko lanean ari gara. Hori da gure nahia eta zenbaki berria 2008an plazaratzea da gure buruari jarri diogun erronka.

KONTZERTUAK HM Txokoan

Udaberriko kontzertua

2008ko apirilaren 12an - arratsaldeko 6,30tan - HM Txokoan

ARKAITZ MINER

Biolina euskal herri dantzan

Errenteriako biolin-jole hau, gure txokoan azken sei urteetan antolatu ditugun ekintza ezberdinetan partaide izan dugu. Arkaitz Miner talde formatu ezberdinetan parte hartzen ikusteko aukera izan dugu eta, zalantzarik gabe, Herri Musikaren Txokoak dauzkan lagun handi horietakoa dela esan dezakegu.

2002a gogoratzuz, orduan herri musika eta bert-solaritza gaitzat hartuta antolatu genuen Herri Musikaren I Jardunaldietan Amuriza, Tapia eta Leturia taldearekin izan genuen.

Lau urte pasa ziren 2006an berriro HM udako kontzertuan gure artean izan genuen arte. Orduan euskal herri musika jotzen duen Aintzina talde berriaren estreinako emanaldia entzuteko aukera izan zuten Ergoiena hurbildu zirenek.

Teknika, trebetasun eta sentsibilitate handiko musikaria izateaz gain, benetan harrigarria da Arkaitzek berarekin jotzen duten beste musikari horiengandik eta bere gustukoa den musikatik ikasteko duen gaitasuna. Hala, zenbait trikiti

talderekin egindako elkarlanetatik berea egin du dantzarako herri musika hori biolinarekin jotzeko era berezi eta berezkoa.

Irlandar doinuak ere landu ditu gurekin izan genuen Turlach irlandar taldearekin eta bertako partaide den Alan Griffinek esana da berak ezagutzen duen irlandar musika jotzen duten biolin-jole on horietakoa dela Arkaitz.

Bere jarduera musikalean, biolinarekin lagundu dituen musikarien artean topatzen ditugu Alaitz eta Maider, Imuntzo eta Beloki, Tapia eta Leturia bezalako trikiti taldeak. Bestela, Ruper Ordorika, Joseba Tapia, Rogelio Botanz eta Pettiren bide-lagun gisa ere jardun du.



VALENTZIAKO CANT D'ESTIL

Josep A. Aparicio, "Apa" (cantador), Trini Carballo (cantadora), Josemi Sánchez (versador),
Pau Puig (saxo soprano), Pep Juste (guitarró y dolçaina), Rafa Solves (guitarra y tabal)

Albaes eta baita l'Ú, l'Ú i dos, l'Ú i dotze eta Riberenques valentziarrak Cant d'Estil edo Cant Valencià d'Estil deitutakoa osatzen duten musika formak dira. Musika espresio hauek tradizio mediterraniararen ezaugarrien arteko nabarmenenak biltzen dituzte beraien egituretan: melismen erabilera ugaria eta artificio handiko apainketa, afinazio atemperaturako joera, oinarri harmoniko eta erritmiko finkoen inguruan doinuak jotzeko askatasuna, testuen inprobisazioa, etab.



Tradizioaren kanonen barruan kantatzen duten abeslarien birtuosismoa eskatzen duten andaluziako fandangoarekin batera garapenezko, edo fandangoaren gisako oinarria dutenen, eta esanahiz betetako musiken familiako soinu moten aurrean gaude.

Valentziako musika ondarearen gailur estetikoaz ari gara inongo zalantzarik gabe, bere ekoizpen artistiko nabarmenenaz, bere ekarpen komertzial nagusienaz. Bere jatorria, beste forma musikal batzuen gisa (flamenkoa, Portugalgo fadoa, Greziako rebetikoa, blues amerikarra, arabesk turkiarra, raï algeriarra,...), batera gertatutako bi prozesuren nahasketan topatzen dugu: nekazal jatorriko soinuak kaleko bizimoduarekin elkartzean eta, gainera, horrekin gozatuko duen entzulego zabalaren azaltzean. Guzti horrek XIX. mendearen erdialdean orduarte funtzionalagoak -dantzaren ordezkatzaila kasu batzuetan, etxean erabilitakoa (sehaskakanta, nekazaritza) bestetan- izan ziren jatorrizko generoen estilazioa ekarri zuen. Honen eraikuntza XX. mendearen hasieran osatu zen musika industria hasiberria eta diskagintza azaltzearekin.

Loratze berantiarreko emaitza dugu Cant Valencià d'Estil. Gaur egun ongi errotuta eta bizirik dago, Valentziako Erkidegoko erdialdeko lurraldeetan batez ere, eta XXI. mendeko

valentziar kultura lekua mantendu eta berriak lortzeko borrokan ari da.

Heldu den apirilaren 12an eskainiko den kontzertuan Cant Valencià d'Estil eta bere mota guztiak azaltzen dituzten ereduak osatuko dute. Bide batez, giroa eta gaur egun nola egiten den erakutsiko da zuzen-zuzenean.

Udaberriko kontzertua HM Txokoan

AFARIA KONTZERTU ONDOREN

Orain arte bezala, afaria antolatu dugu Auzokalte elkartearen (Herri Musikaren Txokoaren ondoan) musikariekin egon, jan, kantatu, jo eta dantzatzeko. Izen emateko komeni da lehen bait lehen deitzea, lekua mugatua baita. Prezioa: 15 euro.



kontzertu honen laguntzaileak:





HERNANIKO IV TXISTULARI JAIALDIA

Apirilaren 11ren eta 13aren artean izango da

Txistu eta txistularien sustapenerako jardueraren bidetik jarraituz, Hernaniko Udal Txistulari Taldea eta Euskal Herriko Txistulari Elkartearen laguntzarekin, "HERNANI" Musika Eskola Publikoko Txistulari Taldeak aurtengo txistularien edizio berria antolatu du. Egitaraua begiratzuz ikus dezakegun bezala, edizio berri honek egiten duen eskaintza zabala ikusirik, txistu zaleok ez dugu haitzakirik edukiko bertara ez inguratzeko.

HERNANIKO IV. TXISTULARI JAIALDIKO EGITARAUA

Apirilak 11, ostirala

19:30 Kontzertua
IZEIA TALDEA
Sandiusterreri aretoan

Apirilak 12, larunbata

*Hernaniko IV Txistulari
Gazteen Txapelketa*
Milagrosa kaperan

11:30 A kategoria (12 urte arte)
12:00 B kategoria (13-16 urte)
17:00 D kategoria (taldeak)
18:30 Sari banaketa

Apirilak 13, igandea

Txistularien topaketa

10:00 Dianak herriko kaskoan
eta inguruko auzoetan

12:30 Dantzaldia Plaza Berrin
(eguraldi txarra egingo balu
Udaletxeko arkupeetan)

14:00 Herri bazkaria.

Santa Barbara elkartearen
Bazkaria irekia da. Izena
emateko apirilaren 8 baino
lehenago deitu telefono honetara:
Hernani Musika Eskola
943 33 70 50
Prezioa: 20 euro

18:30 Kalejira eta dantza soinuak
herriko kale eta plazatan

HERRI MUSIKA ETA KIROL JAIALDIA

Oiartzungo Udalaren laguntza eta babesarekin urtarrilak 27an Herri Musikaren Txokoak, Doneztebe plazan, herri musika eta kirol jaialdia antolatu zuen.

Bertan, gure eskolako musika-jole taldeekin batera Oiartzungo Bertso Eskolako taldeak, Oiartzungo nesken soka-tira taldeak parte hartu zuten.

Denen artean eta eguraldi ederren laguntzarekin, goiza aparta eskaini genien plazara inguratu ziren guztiei.



BISITARI KOPURUA

Abendua: bisitari kopurua: 228
Antolatutako taldeak: 12
Urtarrila: bisitari kopurua: 243
Antolatutako taldeak: 10
Otsaila: bisitari kopurua: 320
Antolatutako taldeak: 11
Bisitari kopurua martxora arte: 17.398

HERRI MUSIKAREN TXOKOA

Tornola kalea, 6 - 20 180 OIARTZUN

Tel / Fax 943 493 578

herrimusika@herrimusika.org // www.herrimusika.org

